



BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA
BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA PLANA
BHP



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA

PLANA

*Busko Jauriaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	2
2. JUSTIFIKAZIOA	2
3. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA	2
4. HELBURUAK ETA JARDUERAK.....	3
4.1. BIZIKIDETZA.....	3
4.1.1. Definizioa.....	3
4.1.2. Helburu nagusiak	4
4.1.3. Bizikidetza-arauak	4
4.2. HEZKIDETZA.....	4
4.2.1. Definizioa.....	4
4.2.2. Helburu nagusiak	5
4.2.3. Jarduerak	6
5. PLANAREN EBALUAZIOA	6



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA

PLANA

*Buskoi Jaurirantzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

1. SARRERA

Arte-irakaskuntzak, oro har, eta musikakoak eta dantzak, bereziki, sormenaren, parte-hartzearen eta elkarlanaren bidez, baliabide pribilegiatu bihurtzen dira bizikidetza demokratikoa, parte-hartzea, hezkidetza, indarkeriarik eza eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko.

Musika-eta dantza-interpretazioak, bere hizkuntza unibertsalarekin, hezkidetzaren arloko hezkuntza-lana errazten du, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, ekitatea eta lan komuna sustatzen duten irakaskuntza-estrategiak lantzea ahalbidetzen du. Gainera, musika- eta dantza-interpretazio bateratuak pertsonen artean gizarte-loturak ezartzea ahalbidetzen du, generoa edozein dela ere.

2. JUSTIFIKAZIOA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskola aurreiritzirik eta bazterketarik gabeko gunea izatea nahi dugu, berdintasuna eguneroko errealitatea izan dadin, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza-jarduera inklusiboa bultzatuz eta garatuz eta bizikidetza positiboaren alde apustu eginez. Hain zuzen ere, helburu horrekin egin da Eskolaren Bizikidetza eta Hezkidetza Plana.

Plan honek, batetik, Eskolan nahi dugun bizikidetza-eredua eraikitzeko helburuak eta arauak zehaztuko ditu, eta, bestetik, hezkidetzari dagozkion helburuak eta jarduerak ere zehaztuko ditu.

Azken batean, bizikidetza eta hezkidetza elkarrekin doazenez, plan bakarra egin dugu, elkarrekiko errespetuan eta hezkidetzan oinarritutako bizikidetza lotuta daudelako nahitaez, bata ezin delako bestea gabe gertatu.

3. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak hezkidetza-eskola ahalbideratzeko egin duen bizikidetza eta hezkidetza plan hau ondorengo proiektu eta legeetan oinarritu da:

- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa (29. artikulua), emakumeen eta gizonezkoen berdintasunerakoa.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA PLANA

*Busko Jauriaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa.
- 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, EAEko Hezkuntzarena.
- 64/2024 Dekretua, maiatzaren 21ekoa, EAEko musika- eta dantza-eskolena.
- II. Hezkidetza Plana, 2019-2023, EAEko hezkuntza sistemarako berdintasunaren eta tratu onaren bidean.
- Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren AJaren II tituluko III. Kapitulua.
- Bizkargi Musika eta Dantza Hezkuntza Proiektua.

4. HELBURUAK ETA JARDUERAK

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren hezkuntza-testuinguruak astean ordu gutxi batzuk hartzen ditu ikasle bakoitzeko, baina egoera horrek ez gaitu salbuesten Eskolaren bizikidetza positiboaren eta hezkidetzaren alde irmo jardutetik.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren hezkuntza-proiektuaren helburu nagusien artean honako hau dago: *“Tratu onean eta errespetuan oinarritutako bizikidetza positiboa garatzea, berdintasunaren eta hezkidetzaren ikuspegitik, balio horiek eskola-jardueretan eta irakasleen prestakuntzan presente egon daitezen zaindiz, diskriminazio mota oro prebenitzeko eta saihesteko.”*

Beraz, bizikidetzaren eta hezkidetzaren eremuak uztartzen dituen helburu orokor hori abiapuntutzat hartuta, helburu eta jarduera hauek definitu eta ezarri ditugu eremu bakoitzean.

4.1. BIZIKIDETZA

4.1.1. Definizioa

Bizikidetza positiboa hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien artean sortzen diren harremanen bidez eraikitzen da, eta bizikidetza hori positiboa izango da, betiere eraikuntza hori errespetuan eta tratu onean oinarritzen bada, eta guztien desberdintasunak eta iritziak berdintasunez onartzen badira.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA PLANA

*Busko Jauriaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

4.1.2. Helburu nagusiak

1. Hezkuntza komunitate-kideen artean tratatu onean oinarrituriko elkarbizitza positiboa sustatzea.
2. Eskolako bizikidetza arauak errespetatzea, Eskolako kide guztion inplikazioa bultzatuz, eta ardurak hartuz, Eskolako bizikidetza positiboa lortzeko.
3. Gerta daitezkeen gatazken eta jokabide desagokiak era baketsuan konpontzea, neurri hezitzaileak aplikatuz, gatazken kudeaketa eraginkor bat aurrera eraman ahal izateko.
4. Aplikatzen diren hezkuntza-neurriak kaltea edo mina konpontzera bideratuta egotea, bete ez den arauarekin zuzenean lotuta egotea, betearazteko modukoak izatea eta pertsonarengan eskubiderik ez urratzea.

4.1.3. Bizikidetza-arauak

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak Eskolako AJaren III. kapituluaren II. tituluan ezarrita ditu bere bizikidetza-arauak, kide guztien artean bizikidetza positiboa eta baketsua bermatzeko. Araudi honetan planteatutako bizikidetza-arauek ikuspegi hezitzaile eta positibo bati erantzuten diote; izan ere, gure ustez, arau horiek Eskolan sor daitezkeen gatazkak modu baketsuan eta hezitzailean konpontzera eta kide guztien aniztasuna eta berdintasuna errespetatzen direla bermatzera bideratuta egon behar dute.

4.2. HEZKIDETZA

4.2.1. Definizioa

"Hezkidetza" terminoa bi biztanleria-talderen edo gehiagoren baterako hezkuntzari erreferentzia egiteko erabili ohi da: nahiz eta batzuetan ezaugarri desberdinez osatutako taldeen hezkidetzari aplikatu zaion (klase soziala, etnia, etab.), ohiko erabilera bi giza kolektibo espezifikoren hezkidetzari dagokio: gizonena eta emakumeena.



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA PLANA

*Busko Jauriaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

Nolanahi ere, hezkidetzaren helburua elkarriketaren aldeko pertsonak hezte da, eta errespetua eta tolerantzia eskatzen ditu; beraz, indarkeria prebenitzeko bermea da. Hezkidetzan oinarritutako irakaskuntza lortzeko, gizabanakoen berdintasunetik ez ezik, askotariko genero-ereduen integrazioetik ere abiatu behar da.

4.2.2. Helburu nagusiak

Gure ustez, berdintasunak guztion oinarritzko eskubideekiko errespetua bermatzen du eta gizarte justuagoa lortzen laguntzen du. Hori lortzeko bidean aurrera egiteko, hezkidetzaren arloko helburu espezifiko hauek aukeratu ditugu:

1. Irakasleak hezkidetzaren inguruko prestakuntza jasotzea.
2. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatuko duena, genero-rolak eta - estereotipoak alde batera utzita.
3. Sexu- eta genero-aniztasunaz gain, gainerako dibertsitate guztiak errespetatzea: jatorrizko herrialdea, kultura, gizarte-maila, erlijioa, sexu-aukera..
4. Historian musika-munduan emakumeek egindako ekarpen isila eta ezkutukoa ezagutaraztea, haiek egindako ekarpenak bistatuz, hainbat informazio-iturriren bidez, adibidez:
<https://www.gaztezulo.eus/albisteak/klasikoak-astinduz-non-daude-emakumeak>
5. Ikasleek eta irakasleek berdintasunaren arloan eragina duten proposamenetan aktiboki parte har dezaten sustatzea
6. Musika-instrumentuak aurkezteko antolatzen diren saioetan orientazio ez-sexista bermatzea, ikasleak instrumentua hautatzerakoan genero-ikuspegia baztertzea sustatuz.
7. Eskolan zabaldu nahi diren hezkidetz-balioen publizitatea egitea (kartelak, albisteak, etab.), Eskolaren beraren komunikazio-kanalen bidez ikusarazteko (webguneko *banner* iraunkorra, iragarki-taula, sare sozialak).



BIZKARGI

Musika eta Dantza Eskola

BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA

PLANA

*Busko Jauriaritzako Hezkuntza,
Unibertsitate eta Ikerketa Sailak
baimendutako Musika eta Dantza
Eskola.
Escuela de Danza y Música
autorizada por el
Departamento de Educación,
Universidades e
Investigación del Gobierno Vasco.*

8. Aniztasunarekin eta genero-berdintasunarekin lotutako efemerideak ospatzeko jarduerak antolatzea.

4.2.3. Jarduerak

Eskolan, ikasturtean zehar, hainbat jarduera antolatuko dira hezkidetzaren inguruan, besteak beste, ondoren zehazten direnak:

- Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8).
- Tolerantziaren munduko eguna (azaroak 16).
- Haurren Eskubideen Munduko Eguna (azaroak 20).
- Genero Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna (azaroak 25)
- Homofobiaren eta transfobiaren aurkako eguna (maiatzak 17)

5. PLANAREN EBALUAZIOA

Bizikidetzaren eta hezkidetzaren arloko helburuak eta jarduerak Eskolaren Urteko Planean jasoko dira, eta Eskolaren Urteko Memorian ebaluatuko dira.